

GARBURA / CARBIDE

Žuvan: “Nahiago dut haurrek inprobisatzea”



Josip Žuvan New-Directors saila itxiko du.

JORGE FUEMBUENA

IRATXE MARTÍNEZ

New-Directors sailaren itxiera Josip Žuvan (Kroazia, 1987) zuzendariaren eskutik dator. Zuzendariak harro dakar bere lehen film luzea, *Garbura* (*Carbide*), haurtzaroari eta bizilagunen arteko harremanei buruzko

filma. Harro dator, baina oso urduri ere bai, aitortu baitu ez zekiela zentzuzkoak izan zirela.

Beraz, esan zizutenean hautatua izan zinela, ez zenekien zer esan nahi zuen?

Ezagutzen nuen haren ospea, bai,

baina ez nekien zeinen handia zen. Bilaketa bat egin nuen eta, hemen-dik pasatutako zinemagileak ikusi nituenean, bertigo handia sartu zitzaidan. Hemendik Pedro Almodóvar pasatu da, Star Wars filmaren Europako estreinua izan zen, eta zuzendari handi askok New-Directors-

-en hasi zuten beren ibilbide zinematografikoa.

Atzerriko jendeak ikusteak ere beldurra eman zidan, Kroaziatik kanpo jendeak ez ulertzeak kezkatzen ninduen.

Hala ere, filmaren gaia giza harremanak dira, oso gai unibertsala.

Protagonistak, Antonio eta Nikola, itxuraz hautsi ezinezko adiskidetasuna duten bi haur bizilagunak dira. Haien familiek urteak darimate etsaituta. Mutilen adiskidetasuna Gabonetan probatzen da, haien familien sekretu arriskutsuak aurkitzen dituztenean.

Ni nentorren lekutik, auzokoan arteko horrelako gatazkak oso ohikoak dira. Udan turismo asko izaten da, baina neguan herriak hustu egiten dira eta aldameneko etxeak egiten duena besterik ez da gelditzen. Ehunka istorio daude honi buruz, nik horietako bati buruz bakarrik idatzi nuen. Haurtzaroa ere gogorarazten dit. Haurren ikuspegitik kontatu nahi nuen istorioa.

Erronka izan al da hain aktore gazteekin lan egitea?

Haurrekin lan egiteak psikologia handia eskatzen du. Zorionez, zinemari lan egin aurretik haurrek parte hartzen

zuten iragarki eta programetan parte hartu nuen eta kameraren aurrean nola jokatzeko duten ikasi nuen. Filmatzeko orduan, nik ez nuen haurtzaroa erromantizatu nahi, haurrek ere biraoak esaten dituztelako edo haserretu egiten direlako. Benetakotasunez transmititu nahi nuen. Horretarako oso zintzoa izan nintzen haiekin une oro: nik eszenan sentitu behar zutena kontatzen nien, eta haiek sentituko zuten zirraren batekin lotzen zuten. Bi aktore nagusiek berezko talentua dute.

Haurren ukitu hori ere nabari da filmaren errodojean.

Bai! Ez zegoen planifikatuta. Hartualdi batzuk mugikorretatik filmatzeko idatziaz ziren, umeek grabatuko balituzte bezala. Konturatu ginen benetakoa zela grabatzen zutenak haurrak baziren. Eta horrela egin genuen. Mugikorrekin eta Youtuberekin hazi dira, guk baino hobeto erabiltzen dituzte. Izan ere, hartualdi batzuetarako, mugikorra eman nion Nikolarena egiten duen aktoreari, eta itzuli zidanean, gezurrezko hartualdiak aurkitu nituen mugikorraren paperontziko karpetan. Hartualdi horiek oso onak ziren, eta pelikulan agertzen direnak dira. Berak ez daki, estreinaldian ikusiko du! Bere aurpegi ikusteko irrikitan nago.

Vive le cinéma!

2022.07.09
- 2023.01.08

Jia Zhang-Ke
Lemohang Jeremiah Mosese
Isaki Lacuesta
Dea Kulumbegashvili

ERAKUSKETA
EXPOSICIÓN
EXHIBITION

TABAKALERA
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

eye

SSIFF

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

TABAKALERA